

2012ko APARTEKO LANSARIA: INMOBILISMOARI EZ!

Aparteko lansaria erreklamatzearen inguruan sortutako polemika dela-eta, LABen harrিতuta gaude bultzatzen ari den sindikalismo motarekin. Inmobilismoa eskatzen digutela ematen du.

Gauzak argitze aldera, lehendabizi Bizkairekin hasiko gara eta geroago Arabako eta Gipuzkoako egoera azalduko dugu.

BIZKAIA

Badago epai bat paga ia osoa aitortzen duena, abenduaren 30 eta 31ri dagokiona salbu, alegia. Hortaz eta Eusko Jaurlaritzak epaia errekurritu duela ikusirik -paga osoa ordainduko zuela esan zuenean gezurra ari zela frogatuz-, sekula baino arrazoi gehiago daude erreklamazioa egiteko. Horrexegatik zuen eskura jarri du LABek, lehendabizi erreklamazioa eta geroago gorako errekurtsora. Azkenean Bizkaiko ez afiliatu guztien artean abokatuak kontratatu beharko dute. Horrek kostu txikia dakar. Abokatuak berak 10 pertsonako taldeak egingo ditu demanda jartzeko. Erreklamazioa eta gorako errekurtsora begira, berdin dio taldean zenbat lagun diren. Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 6 zki.ko epaitegiak berak erabaki du Gasteizko auzitegietara bidaliko lituzkeela 10 erreklamatzailetatik gorako demandak. Gogoan hartu, beste kontu batzuei dagokienez, badaudela EJK Auzitegi Gorenera errekurritutako irabazitako epai batzuk. Hala ere sindikatuok jarraitu dugu demandak jartzen. Horren adibide argia da egun "kanosoekin" gertatutakoa.

Honekin guztiarekin nahi duguna da langile guzti-guztiek auzibidera jotzeko aukera izatea. Sindikatu honek askotan adierazi du tasa judizialak, abokatu bitartez derrigortutako auzialdiak, kostak... arbuiatzen dituela. Kolektibo osoa auzitegietara jotzera beharturik eta gehiegizko irizpideak jartzen dituztela, ez litzateke zuzena LABek bere esku dagoen guztia ez egitea bidegabekeria hori ahalik eta arinena izan dadin; gure aldarrikapenekin bat egiteagatik ez bada ere.

ARABA ETA GIPUZKOA

Herrialde hauei dagokienez, esan liteke nahi dutela ez errekurritzea. Alde batetik, LABek afiliatuen erreklamazioak eramango ditu auzitegietara eta kasu batzuetan irabazi eta bestetuetan gal dezakegu. Ez afiliatutako langileek ere LABekin egin dezakete gorako errekurtsora arte. Administrazioarekiko auzien demanda jarri nahi izan ez arren, erreklamazioa eta gorako errekurtsora egin behar dira, egiten ari garena badelako sailaren aurreko protesta eta, gainera, hedabideetara zabaldu beharko dugu. Gogoan hartu beste administrazio batzuek ordaindu egin zutela, esaterako, Bilbo eta Donostiako udalek, aldundi batzuek, Kanarietako gobernuak... Gorako helegiteraino ez heltzeak esan nahi du agindutakoa ez betetzen uztea EJKri, eta hori akabua da kolektibo gisa.

Lehen esan bezala, Bizkaian abokatuak kontratatuko dute herrialdeko langileen artean administrazioarekiko auzitegian demanda jartzeko. Horrek dakarren gastua dela-eta demanda jartzen ez duenak galtzen duen bakarria auzitegietara

jotzeko eskubidea da; baina ez aparteko lansaria kobratzekoa, baldin eta presioari esker, edo izandako negoziarioari esker Eusko Jurlaritzak ordaintzea erabakiko balu. Ezta Madrilek onartuko balu ere paga osorik itzultzea estatu osoan, apirileko nominan kobratuko ditugun 44 egunekin egin bezala, errealitate juridikoak beharturik. Hipotesi horretan, errekurritu duenak zein ez duenak eta baita aurkako epaia jaso duenak ere kobratuko dute.

Argiago: aparteko lansaria itzultzeko erabaki politikoa hartuko balitz, kolektiko osoari ordainduko litzaioke (kontrako epaia izan zein ez, baita burutu gabeko errekurtsioa ere). Erabaki hori iritsiko ez balitz, aldeko epaia jaso dutenek baizik ez lukete kobratuko.

Administrazioarekiko auzi-errekurtsorako mugarriei dagokienez, legeak lau urte agintzen du diru-kopuruak erreklamatzeko. Horren arabera, epaitegi batzuek 2012ko abenduaren 29a hartuko dute aintzat aparteko lansaria kentzea ahalbidetzen zuen BJLOren aldaketa aurreko egunean argitaratu baitzuten. Beste auzitegi batzuek, ordea, esango dute epemuga 20/2012 Errege Lege Dekretuak markatzen duela, horien bitartez aparteko lansaririk gabe utzi gintuzten-eta sektore publiko osoan. Horiek horrela eta zer gerta ere, 2012ko uztailan oinarriturik jokatu beharko dugu, hots, errekurritzeko urtebete pasatxo daukagu.

Kontuan hartzeko beste datu bat: Bilboko 6 zki.ko Administrazioarekiko Auzitegiko magistratuak Bizkaian erroldaturik egotea exijitzen du, berdin dio non egiten den lan, helbidea da erreferentzia.

Gaur arte lasai ibili gara, bai PSE-Eren garaian bai oraingo EAJrekin ere, Eusko Jurlaritzak esan zuelako ordainduko zutela. Duela gutxi, ordea, **ERKOREKAK ESAN DU AUZITEGI KONSTITUZIONALAK ESANO DUENA EGINGO DUTELA** eta, hori gutxi balitz, Bizkaian irabazitako epaia errekurritu dute.

Dena den, penagarria da langileak beldurtu nahi izatea ez dezaten ezer egin. Jakin badakigu auzibideak dituen ondorioak eta zer daukagun irabazteko eta galtzeko. Inoiz paga ordainduko balitz (Madrilen edo Gasteizen erabaki politikoz), esatea erreklamazioan edo gorako helegitean geratu zenari ez litzaiokeela egokituko **GEZURRA da, eta horrezaz gain langileak INMOBILISMORA ERAMATEA.**

2015-03-16

>justizia

